

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ana Mari Lezertua Sustaeta

*Mutriku,
Gipuzkoa
(1940)*

Aurkibidea



Biografia



Mutrikuko "Katu kalia" (Ifar klean) jaio zen, lau ahizpatan bigarrena. Gurasoak ere biak mutrikuarrak zituen. Aita eta aitona marinelak ziren, eta senarra ere marinela izan zuen. Marinel-familien bizimoduaren inguruko azalpenak eta diruz gaizki nola ibiltzen ziren kontatzen du. "Katu kaleko" bizimodua eta neska gaztea zenean egiten zituzten antzerkiak dakartza gogora. Antzerkirako eta kanturako zaletasun handia zuen. Eskolan udaletxean bertan zegoen eskola publikoan ibili zen, maistra nafar batekin, eta oinarri-oinarritzko ikasketak egin zituen. Zortzi urterekin eskabetxerian hasi zen lanean, antxoei burua kentzen. Gerora, Egaña fabrika ezagunetik eskaintza egin zioten, eta hara joan zen lanera. Bertan intsigniak pintatzen zituen eskuz. Ezkondu artean, Egaña lantegian jardun zuen lanean. Senarra ere marinela zuen, eta, batzuetan, harekin batera joaten zen itsasora. Beste batzuetan, berriz, arraina saltzen ibiltzen zen klean, arrainak otarran hartuta. Hiru seme-alaba izan zituzten. Seme-alabak pixka bat koskortu zirenean, haien ikasketak ordaintzeko marinelaren soldatarekin nahikoa ez zela-eta, adineko pertsonak zaintzen hasi zen, udaletxeko langile moduan, eta sei-zazpi urte egin zituen lan horretan.

Zintak

MUT-026

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Data**: 2011-12-03
- **Iraupena**: 80 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Bernabe, Ainhoa

MUT-092

- **Proiektua**: Mutrikuko gerra zibilaren memoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arrizabalaga, Nerea
- **Data**: 2022-01-14
- **Iraupena**: 32 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. "Katu kalea"

- **Erref**: MUT-026/002
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:00:55. **Bukatu**: 00:02:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Ifar kaleri "Katu kale" esaten diote. Izen horren zergatia azaltzen du. Garai batean, abere ugari egoten omen zen kale horretan. Langosta otarrak egiten zituen gizon eta elkarte gastronomiko bat ere baziren kale horretan. "Hartu-eman handiko" kalea zen.</p>

2. "Katu kale"ko etxeak

- **Erref**: MUT-026/003
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:02:59. **Bukatu**: 00:04:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

<p>"Katu kale"ko etxeak nolakoak ziren; "kale baserriak" izaten ziren. Etxe batzuen izenak aipatzen ditu. Abere ugari egoten zen kalean. Bi-hiru solairuko etxeak izaten ziren; behean, ukuiluarekin. Kale alaia eta polita dela dio Ana Marik.</p>

3. Antzerkirako zaletasuna

- **Erref**: MUT-026/004
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:04:05. **Bukatu**: 00:06:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Gaztetan antzerkirako zaletasuna zuen Ana Marik. Eskola denboran, antzerkia egiten omen zuen. Bizilagunen artean antzerkiak prestatu eta, gero, jendaurrean antzeztzen zuten. Behinola, aguazilak antzerkia egitea galarazi zien ez zutelako zergarik ordaindu. Antzerkia ikustera joaten zen jendeak borondatea ematen zien. "Soy de la raza calé y tengo la sangre morena..." abesten zuten antzerkietan. Herriko jendea joan ohi zen antzerkia ikustera. Hilean, pare bat ikuskizun egiten zituzten.

4. Herri kantuzalea

- **Erref:** MUT-026/005
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:06:51. **Bukatu:** 00:07:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

Garai batean, Mutrikun asko kantatzen zen: kontserba lantegietan, tabernetan... Abesti gehienak erdaraz izaten ziren.

5. Eskola nazionala

- **Erref:** MUT-026/006
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:07:25. **Bukatu:** 00:09:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskola nazionalean ibili zen. Eskola udaletxe azpiko lokaletan zegoen. Arratsaldetan, joskintza izaten zuten. Maistrak eskolako umeak bereizi egiten zituen; aberatsak alde batetik, xumeagoak bestetik... Maistrak eskola garbierazi zioneko pasadizoa kontatzen du.</p>

6. Maistra eta eskolako antzerkiak

- **Erref:** MUT-026/007
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:09:13. **Bukatu:** 00:11:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Miren Goiburu nafarra zen maistra. Nolakoa zen azaltzen du. Maistra

euskalduna zen, baina eskola erdaraz ematen zuten. Eskolan ere antzerkiak egiten zituzten. 'Nela, la hija del mar' antzeztu zutenekoa kontatzen du. Beste behin, tartamutuarena egin zuela kontatzen du.

7. Maistra eta belarrondokoak

- **Erref:** MUT-026/010
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:13:50. **Bukatu:** 00:14:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Ana Mariri sekula ez zaio ikastea gustatu; nahiago izan du antzerkian edo kantuan aritzea. Maistrak ez zien jaramonik egiten. Maistrari buruz hitz egiten du. "Nerbio handiak zituenean" belarrondokoak ematen omen zizkien.

8. "No hablaré más en vasco"

- **Erref:** MUT-026/011
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:14:49. **Bukatu:** 00:16:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolako kontuak. Euskaraz hitz eginez gero, zigorra jartzen zien. Nolako zigorak izaten ziren azaltzen du; arbelean "no hablaré más en vasco" idatzarazten zien. Ana Mariren etxean euskaraz hitz egiten zuten; eskolan ikasi zuen erdara. Maistrak ikasleen artean bereizketak egiten zituen.

9. Izeba, kofradia eta 'Xabiertxo'

- **Erref:** MUT-026/014
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:16:33. **Bukatu:** 00:19:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Ana Mariren izeba bat kofradian bizi zen; bertako garbitasunaz arduratzen zen. Kofradia nolakoa zen azaltzen du; marinelen kontuak eramateko bi bulego zeuden, eta, pixka bat barrurago, mutilen eskola nazionala zegoen. Eskola horretako maisuari buruz hitz egiten du: euskalduna, Otxoa abizenekoa, Ondarroa bideko baserri batean zuen hartuta ostatua, eguraldi txarra egiten zuenean oinetakoak Ana Mariren izebarenean aldatzen zituen... Ana Mari izebarenera joan ohi zen liburu bat irakurtzearren Xabierto. Liburua nolakoa zen azaltzen du. Izebarenean ez zen jatekorik falta izaten, eta Ana Marik denbora asko pasatzen zuen izebarenean.</p>

10. Italiarren kontserba-lantegiak

- **Erref:** MUT-026/016
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:19:59. **Bukatu:** 00:20:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

<p>Italiarren kontserba-lantegiak betidanik ezagutu izan ditu herrian.</p>

11. Zortzi urterekin eskabetxean hasi

- **Erref:** MUT-026/018
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:20:29. **Bukatu:** 00:22:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Zortzi urte zituela, Calongero Billante lantegian hasi zen lanean, eskabetxean. Ez zen mahaira iristen, eta bi harri jartzen zizkieten; zakuzko mantalak erabiltzen zituzten "mantala handiagoa zen neu baino". Ana Mariren lana izaten zen antxoei burua kentzea. Gerora, kontserbarako "antxoak" atera eta latan jartzen aritu zen.</p>

12. "Lana aukeran zegoen"

- **Erref:** MUT-026/019
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:22:17. **Bukatu:** 00:22:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Ez du gogoratzen zenbat irabazten zuen Calongero Billante eskabetxe lantegian. Larunbat batean kobratu gabe geratu ziren bankua itxita zegoelako.

Etxean ama diru horren zain zegoen. Hurrengo astelehenean, Busto lantegira joan zen lanera. "Orduan lana aukeran zegoen"

13. Antxoa eta atuna eskabetxean

- **Erref:** MUT-026/020
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:22:57. **Bukatu:** 00:23:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Eskabetxeko lanari buruz hitz egiten du. Antxoa, atuna... jarri ohi zuten eskabetxean. Ana Marik ez du ezagutu txitxarroa eta papardoa eskabetxean jartzen, baina lehenago egiten omen zen.

14. 11 urte Egaña lantegian

- **Erref:** MUT-026/022
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:23:29. **Bukatu:** 00:26:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Calongero Billante utzi eta Busto lantegian bi urte egin zituen. Gero, Egaña lantegian lanean hasteko aukera sortu zitzaion, eta bertan hasi zen lanean. Lantegi horretan, zer lan egiten ziren kontatzen du; Ana Marik intsigniak margotzen zituen. 11 urte egin zituen Egaña lantegian lanean.

15. Mutrikuko lantegiak

- **Erref:** MUT-026/023
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:26:43. **Bukatu:** 00:28:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Ana Mari umea zen garaian, Mutrikun lantegi asko zegoen. Sei-zazpi kontserba-lantegi, Egaña intsignia-lantegia, zaku-lantegia, guraize-lantegia, ferratzailea... aipatzen ditu.

16. Zaku-lantegia

- **Erref:** MUT-026/024
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:28:02. **Bukatu:** 00:28:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Ana Mariren ahizpa zaharrena zaku-lantegian aritu zen lanean. Ahizpari "armosua" ematera joan ohi zen lantegira. Lantegian nolako zakuak egiten zituzten azaltzen du. Ana Mari eta beste bi ahizpa Egaña lantegian aritu ziren lanean.

17. Gurasoak, biak mutrikuarrak

- **Erref:** MUT-026/026
- **Iraupena:** 0:00:20. **Hasi:** 00:28:45. **Bukatu:** 00:29:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ana Mariren gurasoak mutrikuarrak ziren. Aitak urte asko eman zuen Getarian handik ibiltzen baitziren arrantzan.

18. Aita, marinela

- **Erref:** MUT-026/027
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:30:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ana Mariren aita marinela zen. Etxeko gorabeherak kontatzen ditu. Garai batean, neguan, hiru hilabetez ez zen dirurik sartzen etxean (denbora horretan marinela ez ziren itsasora ateratzen), baina gero langabezi-saria jarri zuten, eta laguntza izan zen.

19. "Ezin aberastu" itsasontzia

- **Erref:** MUT-026/029
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:30:28. **Bukatu:** 00:31:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Flota

Laburpena:

'Sagrada Familia' itsasontzia "Ezin aberastu" izenarekin ezagutzen zen.

Bisigua, papardoa, atuna, antxoa... harrapatu ohi zituzten. Marinelek arrantzatutako arrainen parte bat jasotzen zuten, etxerako.

20. Jatekoa

- **Erref:** MUT-026/030
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:31:25. **Bukatu:** 00:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Etxean zer jaten zuten kontatzen du Ana Marik. Astean behin jaten zuten okela.

21. Bola lekuko enkantea

- **Erref:** MUT-026/032
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:32:21. **Bukatu:** 00:32:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:

Itsasotik arraina iristen zenean Bola lekuan egiten zen arrain salmenta. Enkantea nola izaten zen azaldu Ana Marik.

22. Marinel artean beti

- **Erref:** MUT-026/033
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:32:56. **Bukatu:** 00:33:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Marinel artean bizi izan da Ana Mari. Aita marinela zuen, senarra ere bai eta elkarrizketa garaiko bikotea ere marinel izandakoa. Beti itsasoko bizimodua eraman izan du.

23. "Txitxarro freskueee!!"

- **Erref:** MUT-026/034
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:33:18. **Bukatu:** 00:35:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

Ana Mari arrain saltzen ibili izan da urte askoan; "nire gizonen arrainak saldu izan ditut". Arraina saltzeko lekuak: Erdiko kaletik Goiko kalera joan, han buelta eman eta Beheko plazan gelditu ohi zen. Salmenta nola izaten zen azaltzen du: prezioak, pisua, otarra, jendearekin zer harreman izaten zen... Bost-sei emakume ibili ohi ziren arraina saltzen.

24. Sare-konpontzaileak

- **Erref:** MUT-026/035
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:35:23. **Bukatu:** 00:36:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak

Laburpena:

Sare-konpontzaileak lana non egiten zuten azaltzen du. Ana Marik ez du ikasi sareak nola konpontzen diren, baina aparailuak konpontzen badaki; izan ere, senarrarekin askotan joan ohi zen itsasora "txibitxetara".

25. Txibitara senarrarekin

- **Erref:** MUT-026/036
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:36:00. **Bukatu:** 00:38:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak

Laburpena:

Senarrarekin askotan joan ohi zen itsasora. Mutrikun, lau bat emakume edo joaten omen ziren itsasora. "Eta gustura joaten nintzen, gainera, ni!". Itsasoan zer lan egiten zuen azaltzen du. Txibiaren "tenkadak" poz handia ematen duela dio. Txibiak harrapatzeko koraina nolakoa izaten den azaltzen du. Txibitarako lekuak aipatzen ditu.

26. Txitxarrota

- **Erref:** MUT-026/037
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:38:47. **Bukatu:** 00:39:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Txitxarrota nola egiten den azaltzen du Ana Marik. Aparailua itsasontziaren atzeko aldetik bota behar izaten da; gero, arrantzaleak branka aldera eraman behar du aparailua. Itsasontzia bueltan-bueltan ibili ohi da; motorra ez da gelditzen txibitan bezala.

27. Itsasora joateko desiatzen

- **Erref:** MUT-026/038
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:39:55. **Bukatu:** 00:40:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

Ana Mari deseatzen egoten zen senarrarekin itsasora joateko. Behin itsasora joandakoan, ez zuen etxera bueltatzeko gogorik izaten.

28. Ontziola

- **Erref:** MUT-026/040
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:41:23. **Bukatu:** 00:42:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

Mutrikun bazen ontziola bat "kooperatibakoak". Ana Mariren eta senarraren ontzia bertan egindakoa zen. Ontziola non zegoen azaltzen du. Izotz-fabrika aipatzen du: oraindik martxan dago, eta itsasontzietarako izotza egiten dute bertan.

29. Itsasoko bizitza

- **Erref:** MUT-026/041
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:42:14. **Bukatu:** 00:44:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Flota
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua

Laburpena:

Ana Mariren aita marinela zen; sekula ez zen aitarekin itsasontzian ibili. Garai hartan, emakumeak ez ziren itsasontzietan ibiltzen. Ana Mariren aita "Ezin aberastunekoarentzat" egiten zuen lan. Itsasontzia nolakoa zen, zer kargu zeuden, "kamañak" (lo egiteko tokiak) nolakoa izaten ziren... Gertuko arrantzaldiak zortzi egun ingurukoak izaten ziren. Algecirasera joaten zirenean, berriz, bi-hiru hilabete egiten zituzten itsasoan. Bitartean, etxean nola moldatzen ziren kontatzen du; "norberak egin behar aitarena eta amarena".

30. Atuna harrapatzeko malutak

- **Erref:** MUT-026/043
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:45:00. **Bukatu:** 00:46:56

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna

Laburpena:

Amari eta amonari buruz hitz egiten du. Ana Mariren amonak malutak egiten zituen arto-azalarekin; nola egiten zituen azaltzen du. Malutak atuna harrapatzeko erabiltzen ziren. Bertarako, Asturiaserako eta Galiziarako prestatzen zituen malutak. Garai batean, herrian lau familia aritzen ziren lan horretako

31. Amona

- **Erref:** MUT-026/045
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:47:11. **Bukatu:** 00:48:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

Amonari buruz hitz egiten du. Emakume azkarra eta ausarta zela dio. Amonak malutak egiten zituen; malutak atunetarako erabiltzen ziren. Dirua nola kobratzen zuen aipatzen du.

32. Tangarta

- **Erref:** MUT-026/048
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:49:28. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Lehen, Mutrikuko portuan txirlak biltzen aritzen ziren. Gero, lurra dena zangatu zuten, eta galdu egin zen. Txirlatara eta lapatara joateko tangarta erabiltzen zuten. Tangarta zer den azaltzen du.

33. Marinelen lan-tresnak

- **Erref:** MUT-026/050
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:51:25. **Bukatu:** 00:51:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Marinelek itsasoan erabiltzen zituzten otarra motei buruz hitz egiten du. Langosta otarrak, tertzak... zer diren azaltzen du.

34. "Atzandelak"

- **Erref:** MUT-026/051
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:51:57. **Bukatu:** 00:52:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

"Atzandelak" zer diren azaltzen du: marinelek atunetan zebitzala pitarekin hatzetan ebakirik ez egiteko eskularru itxurako telazko babesgarria.

35. "Soletak"

- **Erref:** MUT-026/053
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:53:03. **Bukatu:** 00:54:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

"Soletak". Galtzerdiak zulatutakoan azpi berria egitea. Arropak zutalu edo apurtutakoan amak nola konpontzen zituen azaltzen du.

36. "Truxua egin"

- **Erref:** MUT-026/056
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:54:42. **Bukatu:** 00:55:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Indar handiko euria egiten duenean "truxua egin" esaten dute Mutrikun

37. "Banutu"

- **Erref:** MUT-026/057
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:55:04. **Bukatu:** 00:55:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Gerrikoa edo soka askatzeko "banatu" esaten dute Mutrikun.

38. Itsasoa izendatzeko hainbat modu

- **Erref:** MUT-026/059
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:55:53. **Bukatu:** 00:56:39

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

Laburpena:

<p>Itsasoa izendatzeko hainbat modu aipatzen ditu: zuri-zuri (pikatua) dagoenean "arkumeak daude", olatu handiak daudeak "azpiko itsasoa"...</p>

39. Ilargia eta kalatxoriak

- **Erref:** MUT-026/061
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:56:55. **Bukatu:** 00:58:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

Laburpena:

Itsasoa eta ilargia. Ilargiari begiratzen zitzaion zer eguradi etorriko zen jakiteko. Kalatxorien zarata entzuten denean, eguraldi txarra datorrenaren seinale izaten dela dio Ana Marik.

40. Marinelak eta kanta

- **Erref:** MUT-026/064
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:59:00. **Bukatu:** 00:59:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Marinelak itsasotik bueltatzen zirenean, asko kantatzen zuten. Tabernetan nolako giroa sortzen zen aipatzen du. "En la época de invierno" marinel-kanta aipatzen du. Lehen kanturako ohitura handiagoa zegoela dio.

41. Marinelen etorrerak

- **Erref:** MUT-026/066
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:59:55. **Bukatu:** 01:00:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Marinelen etorrerak nolakoa izaten ziren aipatzen du. Marinelei ongietorria egiten zien herriko jendeak portuan.

42. Marinelen arropa eta jatekoak

- **Erref:** MUT-026/068

- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:00:43. **Bukatu:** 01:02:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Marinelei buruzko azalpenak. Lehen denak ontzi batetik jaten zuten. Zer arropa erabiltzen zituzten: bonbatxo urdinak eta gomazko polainak. marinelek itsasoan zeudenean zer jaten zuten... Bizimodua aldatu egin dela dio.

43. 18 itsasontzi portuan

- **Erref:** MUT-026/069
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 01:02:01. **Bukatu:** 01:02:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Flota

Laburpena:

Ana Marik 18 itsasontzi ezagutu ditu Mutrikun. Elkarrizketa egin zitzaion garaian bakarra.

44. Itsasoko ezbeharrak

- **Erref:** MUT-026/071
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 01:03:15. **Bukatu:** 01:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak

Laburpena:

<p>Ana Mariren senarren aita itsasoan galdu zen. Bisigutara atera ziren, eta ez zuten ez barkurik ez tripulaziorik aurkitu, "bat uste dut bilatu zutela" dio. Ezbeharraren ondorioz, ama hiru umerekin geratu zen; umeei kontu korronte bat ireki omen zien laguntza gisa. Herrira Franco joan zela aipatzen du. Beste behin, itsaso txarra zela, ontziak amarratzera joan eta hiru-lau marinel ito zirela kontatzen du.</p>

45. Despeska

- **Erref:** MUT-026/073
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 01:05:48. **Bukatu:** 01:06:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Lehen, marinelek sarearekin arrainak harrapatu eta gero, lehorrean despeskan aritzen ziren. Saretik arrainak askatzeari esaten zaio despeska. Lan handia ematen omen zuen arrainak askatzeak.

46. Arrain buruak ongarri

- **Erref:** MUT-026/075
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 01:06:49. **Bukatu:** 01:07:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa

Laburpena:

Antxoa eta atun buruak sorora bota ohi zituzten baserritarrek, ongarri gisa.

47. Antxoa eta atuna

- **Erref:** MUT-026/077
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 01:09:03. **Bukatu:** 01:09:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Mutrikun antxoa eta atuna arrantzatu izan da. Bisigu denboran, bisigua ere bai "baina galdu egin zen". Azken urteetan antxoa arrantzateko bost urteko geldialdia egin izana aipatzen du.

48. Etxean arrain faltarik ez

- **Erref:** MUT-026/079
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:09:54. **Bukatu:** 01:11:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Jatordu guztietan arraina izaten zuten jateko. Ana Mariren amak arraina nola prestatzen zuen kontatzen du.

49. "Venta"ra, izebarenera

- **Erref:** MUT-026/080
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:11:05. **Bukatu:** 01:11:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ana Mariren izeba bat "venta"ko atezaina zen, eta bertan bizi ziren. Askotan joaten zen haren etxera "han beti zegoen okela pixkat bat".

50. Mutrikuko eskolak

- **Erref:** MUT-026/083
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 01:12:54. **Bukatu:** 01:13:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Herrian zenbat eskola zeuden aipatzen du. Eskola nazionalak: udaletxe azpian bi; neskena eta mutilena, eta kofradian mutilen beste eskola bat zegoen. San Miguel mojen eskola ere aipatzen du.

51. Umetako jolasak

- **Erref:** MUT-026/086
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:18:20. **Bukatu:** 01:20:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Ume garaiko jolasak: kromoetan, kaniketan, txirlekin, "poto-potoka","andua lehenengoa"ka... Kaleetan aldabak jo eta ihes egiten ibiltzen ziren. Mutil eta neskak elkarrekin ibiltzen ziren jolasean kalean.

52. Ondarretan preso ihes egiten saiatzeagatik

- **Erref:** MUT-092/004
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:01:04. **Bukatu:** 00:03:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Gerraostean, aita Ondarretako (Donostia) kartzelan egon zen preso. Galdames itsasontzian harrapatu zuten, Frantziara ihes egiten zuen bitartean. Aita nazionalista zen. Ondarretan, Martin "Tolon" mutrikuarrarekin batera egon zen ia hiru urtez.</p>

53. Kartzelan tatuajeak egiten zituzten

- **Erref:** MUT-092/005
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:03:21. **Bukatu:** 00:04:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Aitarekin kartzelan zegoen gizon batek, tatuajeak egiten zizkien beste presoetara. Aitari besoetan hiru egin zizkion: aingura bat, itsasontziko lema bat eta emaztearen irudi bat.</p>

54. Xaboiaren barruan mezuak bidaltzen

- **Erref:** MUT-092/006
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:04:23. **Bukatu:** 00:06:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Ondarretan, Ana Mariren aitarekin batera beste mutrikuar bat preso zegoenez, bi emazteak txandakatu egiten ziren janaria eramateko. Behin, bestearen emazteak xaboiaren artean ezkutatuko mezua aurkitu zuen guardiak. Gerra bukatu zenean atera zuten aita kartzelatik.</p>

55. Kartzelatik bueltan beldurra eta amesgaiztoak

- **Erref:** MUT-092/007
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:06:22. **Bukatu:** 00:07:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Iparkalean (antzinako Katu-kalea) jaio zen Ana Mari. Aita kartzelatik bueltatu zenean, amesgaiztoak izaten zituen eta edozein zarata edo hotsekin beldurtzen zen. Presokideen fusilamenduak ikusi zituen.</p>

56. Soldaduen arropak garbitu eta konpontzera behartuak

- **Erref:** MUT-092/008
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:07:29. **Bukatu:** 00:08:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaian, Irisarren esaten zaion aldapatik sartu ziren soldaduak Mutrikura. Bizilagunek, koltxoak jarri zituzten leihotetan, balak etxeetara ez sartzeko. Mutrikura sartu ostean, Ondarroara joan ziren soldaduak. Ana Mariren amonak, zigor gisa soldaduek zituzten zorritz betetako arropak garbitu eta konpondu behar izan zituen.

57. Don Rafaelen etxeko babeslekua

- **Erref:** MUT-092/010
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:08:54. **Bukatu:** 00:10:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Hegazkinak agertzen zirenean, Beko Plazan dagoen harrizko etxe batean (Don Rafaelen etxea) zegoen babeslekura joaten ziren. Komentuko mojek kanpaiak jotzen zituzten hegazkinak hurbiltzen zirenean.</p>

58. Fusilamenduak Mutrikun

- **Erref:** MUT-092/011
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:10:08. **Bukatu:** 00:13:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>San Juan Txiki kanposantuan fusilatu zuten. Mutrikuko abade bat goizeko ordubietan eraman zuten herriko beste batzuek eta hura ere fusilatu zuten. CNT-koek fusilamendu omen zutela esaten zen. Kalbaixo inguruan soldadu asko hil ziren eta fusilamenduak izan ziren. Bide ondotik hasita lehenengo gurutzearen azpian hildakoen gorpuak zeudela esaten zuen amak.</p>

59. Karlistek banatzen zituzten errazionamenduko elikagaiak

- **Erref:** MUT-092/012
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:13:14. **Bukatu:** 00:15:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerraostean ez zuten goserik pasa baina gauza asko falta ziren. Errazionamenduko txartelarekin alondegian janaria lortzen zuten. Janaria karlistek banatzen zuten. Karlista asko zeuden Mutrikun eta haien erdia salatariak ziren. Goiko plazan zuten karlistek egoitza nagusia.</p>

60. Emakume Abertzale Batzaren egoitza frankistek hartuta

- **Erref:** MUT-092/013
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:15:52. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Tranpa kalean, Emakume Abertzale Batzaren egoitza izandako etxean frankistek janaria ematen zuten. Gerraostean ogia nolakoa zen.</p>

61. Gorria izateagatik kartzelara

- **Erref:** MUT-092/016
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:18:32. **Bukatu:** 00:19:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Umetan Ana Marik ez zuen ulertzen zer zen "gorria" izatea, baina bazekien gorriak kartzelan sartzen zituztela. Karlistei eta frankistei txapelgorriak deitzen zitzaien.

62. Eskolan dena gaztelaniaz, Cara al Sol, banderari muin egin...

- **Erref:** MUT-092/017
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:19:28. **Bukatu:** 00:21:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskola nazionalan sartzean banderari muin egin behar zioten eta "Cara al Sol" abestu. Maistra nafarra eta euskalduna zen, Miren Goiburu, eta pena ematen zion euskaldunek gaztelaniaz egin behar zutelako. Udaletxe azpian ibili zen eskolan. Neskak eta mutilak banatuta zeuden. Egaña lantegian lanean zegoen bitartean atera zuen eskola-ziurtagiria.</p>

63. "Lehengo lekuan burua", bandoz aldatzen zirenentzat esamoldea

- **Erref:** MUT-092/020
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:22:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Etxean, gerraostean bandoz aldatu zirenei buruz asko hitz egiten zen. "Lehengo lekuan burua" esaera erabiltzen zen haietaz hitz egiteko.

64. Mutrikuko "Caídos" kalea

- **Erref:** MUT-092/023
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:23:02. **Bukatu:** 00:24:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

<p>Mutrikuko parrokiako kanpoaldean "Por Dios y por España" lemapean agertzen ziren karlista eta frankisten izen-zerrenda bat zegoen. Lema zegoen kaleari "Caídos" deitzen zioten eta "Caídos gora" edo "Caídos behera" esaten zuten.</p>

65. Gerraosteko debekuak

- **Erref:** MUT-092/025
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:24:39. **Bukatu:** 00:26:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Gerraostean Arruti izan zen alkate. Estankoen lizentzia frankistei edo ingurukoei ematen zitzaien eta Arruti familiak estankoa zuen. Ikurrinak etxean gordeta zituzten. Etxean eta kalean euskaraz egiten zuten baina eskolan ez.

66. Pobreentzat eta aberatsentzat meza ezberdinak

- **Erref:** MUT-092/026
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:26:40. **Bukatu:** 00:27:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Bi meza ezberdin egoten ziren, bata pobreentzat goizeko 6.30etan eta bestea aberatsentzat eguerdiko 12etan. Don Rafael, Don Alejo, Peio Jauna,

67. Izeba Saturraranen egon zen preso

- **Erref:** MUT-092/027
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:27:52. **Bukatu:** 00:30:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Ana Mariren izeba bat, Kontxa Campos, Saturrarango emakumeen

kartzelan egon zen preso bere ahizparekin batera. Ahizpak, Mari Campos, lau seme-alabekin bidali zuten kartzelara eta horietako hiru (nagusienak), herriko familiekin bizi izan ziren. Txikiena berarekin egon zen kartzelan.</p>

Lezertua Sustaeta, Ana Mari | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com